

NOT IN MY TOWN 2022

Gazteen arteko diskriminazio egoeren kontrako bideo lehiaketa

Deskribapena

NOT in my town, gazteen artean gerta daitezkeen diskriminazio-egoeren inguruko sentsibilizazioa xede duen bideo lehiaketa da. Ikus-entzunezko bitartekoak erabilia, gazteek gai honen inguruko sentsibilizazio kanpainak sortzea du helburu lehiaketak.

Kategoriak

Lehiaketan bi kategoria bereizten dira:

- **11-14 urte.**
- **+14 urte.**

Parte hartzeko baldintzak

- Bideoan ageri diren pertsonen %90a dagokion kategoriaren adin tartekoak izango dira.
- Ezinbestekoa izango da **partaide guztiek** www.ametxgazteria.eus web orrian, Gaztetxokoan eta Gazte Informazio Bulegoan **izena emateko** eskuragarri dagoen **orria** betetzea. Partaideren batek horrela egin ezean, lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea izango dute antolatzaileek. **Orri hau bideoa entregatzerakoan** erantsiko da.
- Izen ematea eta bideoak entregatzeko **epea azaroaren 23ra** arte izango da (hau barne).
- Epearen barruan aurkezten ez diren bideoak lehiaketatik kanpo geratuko dira.

Bideoen aurkezpena

- **Bost minututik beherako iraupena** duen bideoa aurkeztuko dute lehiaketan parte hartu nahi dutenek. Hizkuntzarik erabiliz gero, euskara, gaztelania edota ingelesa izango dira.
- Bideoa jatorrizkoa izango da, ez-komertziala, telebistan eman gabea, beste edozein lehiaketatan saritu gabea eta, nola ez, hedagarria. Horretarako, bertan parte hartzen duten pertsonak (hala banaka nola taldeka) arte-elementuak erabili ahalko dituzte, musika, irudiak edo egoki irizten dieten beste edozein, kasurako. Betiere, hauek erabiltzeko beharrezko baimenak izanik.
- Bideoak formatu digitalean (USB, e-posta...) entregatuko dira, **partaideen izen-emate orriarekin batera**. Bideoak pertsonalki entregatzekotan, Gaztetxokoan edo Gazte Informazio Bulegoan egingo da, zerbitzu hauek ezarrita duten ordutegiaren barruan.
- Komenigarria da, derrigorrezkoa izan ez arren, bideoak 16:9 formatu horizontalean egitea.
- **Bideoen emanaldia abenduaren 4an** izango da Zornotza Aretoan, KINE RALLY lehiaketarekin batera egindako gala batean.

Sariak

11-14 urte

1. **Saria: 200 €** - Dendariak elkarteko baleetan (epaimahaiak emandako saria).
2. **Saria: 140 €** - Dendariak elkarteko baleetan (webgunean egingo den bozketaren bidez).

+14 urte

1. **Saria: 360 €** - Dendariak elkarteko baleetan (epaimahaiak emandako saria).
2. **Saria: 280 €** - Dendariak elkarteko baleetan (webgunean egingo den bozketaren bidez).

*Sariak Dendariak elkarteko bonoetan emango dira, elkarteari atxikitutako dendetan erabili ahal izateko.

*Bideo berberak ezin ditu bi sariak irabazi. Kasu horretan epaimahaiaren saria irabaziko du eta Ikusleen saria bigarren postuan geratu denari emango diogu.

Sari banaketa 2022eko abenduaren 4an izango da. Sariak banatzeko galan aurkeztutako bideoak ikusiko dira, eta orduan jakinaraziko da zeintzuk diren irabazleak.

- Ezaugarri jakinen bat dela kausa, bideoetako batek/batzuek aipamen berezia merezi duela/dutela uste izanez gero, antolatzaileek sari bereziak emateko eskubidea edukiko dute.
- Antolatzaileek aurkeztutako edozein lan lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea izango dute, beraien ustean eduki desegokia, mingarria edo bestelakorik duelako.

Epaimahaiaren saria

Epaimahaia GARIZA FILMSEKO bi ordezkari eta Amorebieta-Etxanoko Udaleko Gazteria arloko programa eta zerbitzuetako pertsona batek osatuko dute.

Ikusleen saria

www.ametxgazteria.eus web orrian egingo den bozketaren bidez erabakiko da ikusleen sariaren irabazlea nor den. **Bideoen bozketa azaroaren 25etan hasiko da 17:00etan eta abenduaren 1ean amaituko da 20:00etan.** Denbora **tarte horretan boto gehien jasotzen duena izango da irabazlea.**

Bideoak Ametxgazteriako Youtubeko kanalean

Partehartzaileen **bideoak Ametxgazteriako Youtubeko kanalean ikusgai** izango dira, hauek entregatu eta hurrengo egunean. Hala ere, bozketa ez da hasiko adierazitako data arte.

Irudi baimenak

Aldez aurretik jakinik bideoak Ametx Gazteriako sare sozialetan ikusgai egongo direlarik, adin gabeko partehartzaileek beraien legezko tutoreek betetako argazki/bideo edo irudi baimena aurkeztu beharko dute.

Harremanetarako

Lehiaketaren inguruan edozein zalantza izanez gero, edo informazio osagarria eskatzeko:

Ametx Gazteria

Amorebieta-Etxanoko Udaleko Gazteria Saila // gazteinfo@amorebieta.eus // 94 630 06 49